Espedientea / Expediente	2026-00719
Kontratua / Contrato	Aldibereko interpretazio zerbitzua / Servicio de interpretación simultánea
Erakundea / Entidad	Berrizko Udala / Ayuntamiento de Berriz
Eguna / Fecha	Sinadura elektronikoan jasotakoa / indicada en firma electrónica

BERRIZKO UDALAREN ALDIBEREKO INTERPRETAZIO ZERBITZUAREN KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. Kontratuaren xedea

Kontratu honen xedea da Berrizko Udalaren aldibereko interpretazio zerbitzua ematea. Zerbitzu horren bidez, hizkuntza ofizialek (euskara eta gaztelania) elkar ulertzea bermatuko da, bai eta behar denean beste hizkuntza batzuk ere.

Gutxi gorabehera, urtean honako saio hauek emango dira:

- 10 batzorde informatibo (A tarifa): hilean bat, uztaila eta abuztua kenduta. Ohiko iraupena: 90 minutu edo gutxiago.
- 6 ohiko osoko bilkura (A tarifa): bi hilabetean behin. Ohiko iraupena: 90 minutu edo gutxiago.
- 2 ez-ohiko osoko bilkura (B tarifa): estimazio kontserbadorea. Saio mota hau da 90 minutu gainditu dezakeen bakarra.
- Aldian aldiko beste bi behar (A tarifa): aurreikusi ezin diren baina aurrekariek agertzen dituzten beharrak.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS DEL CONTRATO DEL SERVICIO DE INTERPRETACIÓN SIMULTÁNEA DEL AYUNTAMIENTO DE BERRIZ

1. Objeto del contrato

El objeto del presente contrato es la prestación del servicio de interpretación simultánea del Ayuntamiento de Berriz, garantizando la comunicación entre las lenguas oficiales (euskera y castellano) y, cuando sea necesario, con otras lenguas.

Con carácter orientativo, las sesiones anuales previstas son:

- 10 comisiones informativas (tarifa A): una mensual, excluidos julio y agosto. Duración habitual: 90 minutos o menos.
- 6 plenos ordinarios (tarifa A): uno cada dos meses. Duración habitual: 90 minutos o menos.
- 2 plenos extraordinarios (tarifa B): estimación conservadora. Son el único tipo de sesión que puede superar los 90 minutos.
- 2 otras necesidades puntuales (tarifa A): necesidades no previsibles pero acreditadas por la experiencia previa.

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-03-25 11:33:18(UTC) Fecha: 25/03/2026 11:33:18 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotuzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (406a85e6-de29-4c5c-9d8f-8b940078ea0) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Saioen kopurua orientatiboa da; Udalak alda ditzake saio-kopurua eta mota errealitatearen arabera, kontratuan ezarritako prezio-egitura errespetatuta betiere.

El número de sesiones tiene carácter orientativo; el Ayuntamiento podrá modificar el volumen y tipo de sesiones en función de las necesidades reales, respetando la estructura de precios establecida en el contrato.

2. Zerbitzua emateko modua eta ekipamenduak

2. Modalidad de prestación y equipamiento

Zerbitzua aurrez aurre emango da, Berrizko Udalaren bulegoetan edo berorrek zehazten dituen tokietan. Ez da urrutiko interpretaziorik egin beharko, Udalak berariaz eta aldez aurretik horretarako premia agertzen ez badu.

El servicio se prestará de forma presencial, en las dependencias del Ayuntamiento de Berriz o en los lugares que designe. No será precisa la interpretación en modalidad remota salvo indicación de necesidad expresa y previa del Ayuntamiento.

Interpretaziorako beharrezkoak diren ekipo teknikoak (kabinak, hargailuak, mikrofono sistemak eta abar) Berrizko Udalak jarriko ditu. Adjudikaziodunak ez du ekipo propioa eskaini beharrik, eta Udalaren ekipamenduaren erabilerak ez du erantzukizunik sortuko adjudikaziodunarentzat ekipoaren funtzionamenduari dagokionez, betiere ekipoen erabilera arauak betez gero.

Los equipos técnicos necesarios para la interpretación (cabinas, receptores, sistemas de micrófono y similares) serán aportados por el Ayuntamiento de Berriz. La adjudicataria no estará obligada a disponer de equipamiento propio, y el uso del equipamiento municipal no generará responsabilidad para la adjudicataria respecto al funcionamiento de los equipos, siempre que se haga un uso adecuado de los mismos.

3. Jakinarazpen-epeak eta aurretiko dokumentazioa

3. Plazos de preaviso y documentación previa

Udalak saioaren berri emango dio enpresari ahalik eta lehen. Gutxieneko jakinarazpen-epeak hauek dira:

El Ayuntamiento comunicará a la empresa la convocatoria de cada sesión con la mayor antelación posible. Los plazos mínimos de preaviso son los siguientes:

- Ohiko osoko bilkurak eta batzorde informatiboak: gutxienez 48 orduko aurrerapenarekin.
- Ez-ohiko osoko bilkurak eta beste organo batzuk: gutxienez 24 orduko aurrerapenarekin.
- Aldian aldiko larrialdiko premiak: ahalik eta lehen, kasuan kasuko egoeraren premiari jarraikiz.

- Plenos ordinarios y comisiones informativas: con un mínimo de 48 horas de antelación.
- Plenos extraordinarios y otros órganos: con un mínimo de 24 horas de antelación.
- Necesidades urgentes puntuales: con la mayor antelación posible atendiendo a la urgencia de la situación.

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-03-25 11:33:18(UTC) Fecha: 25/03/2026 11:33:18 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (406a85e6-de29-4c5c-9d8f-8b940078 8ea0) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Jakinarazpenarekin batera, Udalak saioari buruzko dokumentazio erabilgarria bidaliko du: gutxienez, gai-zerrenda eta puntuekin lotutako dokumentaziorik garrantzitsuena. Dokumentazio hori konfidentziala izango da eta I. Eranskinak araututako lanbide-sekretuaren menpe egongo da.

Junto con el preaviso, el Ayuntamiento remitirá la documentación disponible sobre la sesión: como mínimo, el orden del día y la documentación más relevante relativa a los puntos del mismo. Dicha documentación tendrá carácter confidencial y quedará sujeta al deber de secreto profesional regulado en el Anexo I.

4. Prezio unitarioak eta fakturazio-araubidea

4. Precios unitarios y régimen de facturación

Lizitatzaileek honako prezio-egitura honi lotutako eskaintza aurkeztuko dute:

Los licitadores presentarán oferta sobre la siguiente estructura de precios:

Prezio-taula / Tabla de precios

Prestazioa / Prestación	**Baldintza / Condición**	**Gehieneko lizitazio-prezioa (BEZ barik) / Precio máx. licitación (sin IVA)**	**BEZ / IVA**
A tarifa: Saio arrunta / Sesión estándar	≤ 90 min (+15 min tolerantzia/tolerancia)	390,00 €	% 21
B tarifa: Saio luzea / Sesión larga	> 105 min	470,00 €	% 21
Konpentsazioa: Bertan behera utzita (interpretea ez da bertaratu) Compensación: Suspensión (intérprete no presente)	Aldez aurretik jakinarazita / Comunicada previamente	120,00 €	% 21
Konpentsazia: Bertan behera utzita (interpretea agertu da) Compensación: Suspensión (intérprete ya presente)	Interpretea agertu da / Intérprete personado	390,00 € (A tarifa)	% 21

Tarifa-sailkapena irizpide objektiboan oinarritzen da: saioaren benetako iraupenak 105 minutu

La clasificación por tarifa se basa en un criterio objetivo: si la duración real de la sesión supera los 105 minutos (90 minutos +

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-03-25 11:33:18(UTC) Fecha: 25/03/2026 11:33:18 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (406a85e6-de29-4c5c-9d8f-8b9400788ea0) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

gaindituz gero (90 minutu + 15 minutu tolerantzia), B tarifa automatikoki aplikatzen da.

15 de tolerancia), se aplica automáticamente la tarifa B.

Bertan behera uztea:

- Interpretea une horretan oraindik agertu ez bada: 120 € konpentsazio gisa (aldez aurreko prestaketa ordaintzeko).
- Interpretea dagoeneko agertu bada: A tarifa osoa (390 €).

Suspensión de la sesión:

- Si el intérprete aún no se ha personado: 120 € de compensación (por trabajos de preparación previa).
- Si el intérprete ya se ha personado: tarifa A íntegra (390 €).

Fakturazio-araubidea: adjudikaziodunak aurreko hileko faktura aurkeztuko du hilaren hasieran. Fakturan jaso beharko dira saio bakoitzeko: data, lekua, iraupena eta aplikatutako tarifa.

Régimen de facturación: la adjudicataria presentará a principios de cada mes la factura correspondiente al mes anterior, indicando para cada sesión: fecha, lugar, duración y tarifa aplicada.

Prezioak finkoak dira lehen urtean. Bigarren urtetik aurrera, errebisio-klausula aplikatu ahal izango da indarrean dagoen araudiaren arabera.

Los precios serán fijos durante el primer año. A partir del segundo año, podrá aplicarse revisión de precios conforme a la normativa vigente.

5. Proposamen teknikoaren edukia

5. Contenido de la propuesta técnica

Lizitatzaileak aurkeztu beharko du:

El licitador deberá presentar:

- Titularrak eta ordezko interpretatzaileak barne hartzen dituen taldeko kideen zerrenda, I. Eranskineko fitxa beteta (interprete bakoitzeko bat).
- Kudeatzailearen edo kontaktu-pertsonaren izendapena, Udalarekin komunikazio-bidea izango duena.
- Urgentziazko premiei erantzuteko gaitasuna eta protokoloa.

- Relación de los miembros del equipo de intérpretes titulares y sustitutos, cumplimentando la ficha del Anexo I (una por intérprete).
- Designación de un gestor o persona de contacto que ejercerá de interlocutor con el Ayuntamiento.
- Capacidad y protocolo para atender necesidades urgentes.

Adjudikaziodunak zuzenean egikarituko ditu bere langileekiko lan-antolakuntza- eta zuzendaritza-ahalmenak. Berrizko Udalak ez du izango inolako

La adjudicataria ejercerá directamente las facultades de organización y dirección del trabajo de las personas a su cargo. El Ayuntamiento de Berriz no mantendrá

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-03-25 11:33:18(UTC) Fecha: 25/03/2026 11:33:18 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotuzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (406a85e6-de29-4c5c-9d8f-8b940078 8ea0) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

lan- edo administrazio-harremanik nahiz harreman zibilik adjudikaziodunen langileekin.

relación jurídica, laboral, civil ni administrativa alguna con el personal de la empresa adjudicataria.

6. Datu pertsonalen babesa eta konfidentzialtasuna

Interpretaziorako bidaliko diren dokumentu guztiak konfidentzialak izango dira. Interpretatzaileek eta adjudikaziodunak lanbide-sekretupean jardun beharko dute. Adjudikazioduna konprometitzen da abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetzera, eta ezin izango du kontratatutako lanen datuak edo informazioa bere onurarako erabili, ez eta hirugarrenei laga ere, Berrizko Udalaren idatzizko baimenik gabe.

6. Protección de datos personales y confidencialidad

Todos los documentos que se remitan para su interpretación tendrán carácter confidencial. Los intérpretes y la empresa adjudicataria actuarán bajo secreto profesional. La adjudicataria se compromete al cumplimiento de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, y no podrá utilizar los datos o información de los trabajos contratados en su propio beneficio ni cederla a terceros sin el consentimiento escrito del Ayuntamiento de Berriz.

7. Erantzukizun zibileko asegurua

Adjudikaziodunak, kontratu-formalizazioa egin baino lehen, erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat izateko obligazioa du, kontratuaren exekuzioak hirugarrenei edo Udalari eragin diezazkiekeen kalteak estaltzeko. Polizak honako estaldura-mugen gutxienekoak bete beharko ditu:

- Erantzukizun zibil orokorra: 150.000 € gertaera bakoitzeko.
- Datu-konfidentzialtasunaren urraketak edo dokumentazio konfidentzialaren trataera desegokia barne hartzea.

Aseguru-polizaren kopia Udalari aurkeztu beharko zaio kontratuaren formalizazioaren unean, eta bakoitzaren urteko berritzearen ondoren. Polizaren indarraldia kontratuaren iraupena baino txikiagoa ezin da izan.

7. Seguro de responsabilidad civil

La adjudicataria estará obligada a suscribir, con carácter previo a la formalización del contrato, una póliza de seguro de responsabilidad civil que cubra los daños que puedan ocasionarse a terceros o al Ayuntamiento como consecuencia de la ejecución del contrato. La póliza deberá tener las siguientes coberturas mínimas:

- Responsabilidad civil general: 150.000 € por siniestro.
- Cobertura de daños derivados de vulneración de la confidencialidad de datos o tratamiento inadecuado de documentación confidencial.

La copia de la póliza de seguro deberá presentarse al Ayuntamiento en el momento de la formalización del contrato y tras cada renovación anual. La vigencia de la póliza no podrá ser inferior a la duración del contrato.

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-03-25 11:33:18(UTC) Fecha: 25/03/2026 11:33:18 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (406a85e6-de29-4c5c-9d8f-8b940078 8ea0) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

8. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa

Lizitatzaileek frogatuko dute azken hiru urteetako negozio-bolumenik handieneko urtean urteko fakturazio minimoa 15.920 € (BEZ gabe) dela, hau da, kontratuaren urteko balio zenbatetsiaren bikoitza (7.960 € × 2).

8. Solvencia económica y financiera

Los licitadores deberán acreditar una facturación anual mínima de 15.920 € (sin IVA) en el año de mayor volumen de negocios de los tres últimos ejercicios, equivalente al doble del valor estimado anual del contrato (7.960 € × 2).

9. Kaudimen teknikoa eta profesionala

Lizitatzaileek frogatu beharko dute antzeko zerbitzuak eman dituztela azken hiru urteetan, gutxieneko fakturazioa izanik 7.960 € (BEZ gabe) interpretazio zerbitzuetan negozio-bolumenik handieneko urtean.

Horretarako aurkeztuko dute:

- Azken hiru urteetan emandako antzeko zerbitzu nagusien zerrenda, zenbatekoa, data eta hartzailea adierazita.
- Zerbitzu horietako baten edo batzuen ziurtagiriak, hartzaileak emandakoak.

9. Solvencia técnica y profesional

Los licitadores deberán acreditar haber prestado servicios similares en los últimos tres años, con una facturación mínima de 7.960 € (sin IVA) en servicios de interpretación en el año de mayor volumen de los tres últimos ejercicios.

A tal efecto, presentarán:

- Relación de los principales servicios similares prestados en los últimos tres años, con indicación de importe, fecha y destinatario.
- Certificados acreditativos de uno o varios de dichos servicios, expedidos por el destinatario.

10. Kontratuaren iraupena

Kontratua formalizatzen den egunetik urtebetekoa izango da iaupena, eta gehienez hiru luzapenetarako aukera izango da, urte bakoitzeko bat (1+1+1+1 egitura), guztira gehienez lau urte. Luzapen bakoitza automatikoki egingo da, baldin eta alderdietako batek ez badu ezeztapen-jakinarazpena bidaltzen, amaiera-data baino gutxienez hiru hilabete lehenago.

10. Vigencia del contrato

El contrato tendrá una duración de un año desde su formalización, con posibilidad de prórroga por períodos anuales, hasta un máximo de 3 prórrogas (estructura 1+1+1+1), con una duración máxima de 4 años. La prórroga operará de forma tácita salvo que alguna de las partes notifique su voluntad en contrario con al menos 3 meses de antelación al vencimiento.

11. Kontratuaren balio zenbatetsia (VEC)

VEC indarrean dagoen kontratazio publikoaren araudiaren arabera kalkulatu da, kontratuaren gehieneko iraupena (4 urte) eta luzapenak kontuan

11. Valor estimado del contrato (VEC)

El VEC se ha calculado conforme a la normativa vigente de contratación pública, considerando la duración máxima del contrato (4 años) incluidas sus prórrogas. El

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-03-25 11:33:18(UTC) Fecha: 25/03/2026 11:33:18 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotuzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (406a85e6-de29-4c5c-9d8f-8b940078ea0) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

hartuta. Kalkuluak bi tarifa mota bereizten ditu saioaren benetako iraupenaren arabera:

- A tarifa (≤ 90 min + 15 tolerantzia, 390 €): batzorde informatiboak, ohiko osoko bilkurak eta aldian aldiko beste beharrak.
- B tarifa (> 105 min, 470 €): ez-ohiko osoko bilkurak bakarrik. Saio-mota hori izango da, izaeragatik, 90 minutu gainditu dezakeen bakarra.

VEC = 31.840 € (BEZ gabe, 4 urte)

cálculo distingue dos tipos de tarifa en función de la duración real de cada sesión:

- Tarifa A (≤ 90 min + 15 tolerancia, 390 €): comisiones informativas, plenos ordinarios y necesidades puntuales.
- Tarifa B (> 105 min, 470 €): exclusivamente plenos extraordinarios, único tipo de sesión que por su naturaleza puede superar los 90 minutos.

VEC = 31.840 € (sin IVA, 4 años)

VEC xehetasuna / Detalle del VEC

Saio mota / Tipo de sesión	Saio kop. / Nº Sesiones	Tarifa	Prezio unit. Precio unit.	Urteko zenbat. Importe anual	4 urte 4 años
Batzorde informatiboa / Comisión informativa	10	A	390 €	3.900 €	15.600 €
Ohiko osoko bilkura / Pleno ordinario	6	A	390 €	2.340 €	9.360 €
Ez-ohiko osoko bilkura / Pleno extraordinario	2	B	470 €	940 €	3.760 €
Aldian aldiko premiak / Necesidades puntuales	2	A	390 €	780 €	3.120 €
GUZTIRA / TOTAL	**20**	—	—	**7.960 €**	**31.840 €**

VEC prozedura irekia erabiltzeko aukera ematen duten mugen barruan dago.

El VEC se sitúa dentro de los límites que permiten la utilización del procedimiento abierto.

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-03-25 11:33:18(UTC) Fecha: 25/03/2026 11:33:18 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (406a85e6-de29-4c5c-9d8f-8b940078ea0) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

12. Egikaritze-baldintza bereziak

- Enpresa adjudikaziodunak hizkuntza ez-sexista eta inklusiboa erabiliko du interpretazio guztietan.

- Interpretatzaile-taldearen osaera paritarioa bermatu beharko da: lanen % 50 gutxienez emakumeei esleituko zaie.

12. Condiciones especiales de ejecución

- La empresa adjudicataria deberá utilizar un lenguaje no sexista e inclusivo en todas sus interpretaciones.

- Se deberá garantizar la composición paritaria del equipo de intérpretes: al menos el 50 % de los trabajos serán encomendados a mujeres.

13. Adjudikazio-prozedura

Kontratuaren adjudikazioa prozedura irekiaren bidez egingo da, indarrean dagoen sektore publikoaren kontratuei buruzko legediari jarraikiz.

13. Procedimiento de adjudicación

La adjudicación del contrato se realizará mediante procedimiento abierto, conforme a la legislación vigente sobre contratos del sector público.

14. Adjudikazio-irizpideak

Interprete-taldeari dagokionez, honako gutxieneko betekizun hauek ezartzen dira eskaintzan:

2 interprete titular gutxienez. I. eranskineko fitxa bete behar da interprete bakoitzeko.

Interprete ordezko bat gutxienez. I. eranskineko fitxa bete behar da.

Gutxieneko betekizun horiek betetzen ez dituzten eskaintzak baztertuak izango dira. Gutxienekoa betetzen duten eskaintzek puntuazioa jasoko dute jarraian jasotzen diren irizpideen bidez, taulan eta informazio gehigarrian jasotzen denez.

Lizitazioan lor daitekeen gehieneko puntuazioa 100 puntukoa izango da, honela banatuta:

14. Criterios de adjudicación

En relación con el equipo de intérpretes, se establecen los siguientes requisitos mínimos en la oferta:

Mínimo 2 intérpretes titulares, con ficha del Anexo I cumplimentada para cada uno.

Mínimo 1 intérprete sustituto, con ficha del Anexo I cumplimentada.

Las ofertas que no cumplan estos requisitos mínimos serán excluidas. Las ofertas que los cumplan obtendrán puntuación mediante los criterios abajo señalados, de acuerdo con el cuadro e información complementaria.

La puntuación máxima alcanzable en la licitación será de 100 puntos, distribuidos como sigue:

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-03-25 11:33:18(UTC) Fecha: 25/03/2026 11:33:18 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotuzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (406a85e6-de29-4c5c-9d8f-8b940078ea0) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Adjudikazio-irizpideen taula / Tabla de criterios de adjudicación

Irizpidea / Criterio	Puntuazioa Puntuación	Ebaluazio mota / Tipo de evaluación
Eskainitako prezioa (A tarifa erreferentzia) / Precio ofertado (referencia tarifa A)	**60**	Automatikoa / Automático
Esperientzia erakundeetan / Experiencia institucional	**15**	Automatikoa / Automático
Intérprete titular gehigarriak / Intérpretes titulares adicionales	**10**	Automatikoa / Automático
Erantzun-epea larrialdi-premietarako / Plazo de respuesta a urgencias	**10**	Automatikoa / Automático
Antolaketa eta kalitate memoria / Memoria de organización y calidad	**5**	Balio-judizioa / Juicio de valor
GUZTIRA / TOTAL	**100**	95 automatiko / automático + 5 balio-irizpide / juicio de valor

Automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideen zehaztapena (95 puntu):

• Prezioa (60 puntu): A tarifan eskainitako prezioa hartuko da erreferentziatzat (≤ 90 minutuko saioa). Gehieneko puntuazioa (60 puntu) eskaintza ekonomikoenari dagokio. Gainerako eskaintzak formula proportzional baten bidez baloratuko dira: Puntua = 60 × (Prezio txikiena / Prezio eskainia).

• Esperientzia erakundeetan (15 puntu): taldeko intérprete titularren batez besteko esperientzia-urteak hartuko dira kontuan, administrazio edo erakunde publikoetarako interpretazio-zerbitzuetan akreditatutakoak. Eskaintzan zerrenda dokumentatua aurkeztu beharko da. Eskalaren arabera puntuatuko da:

- Urtebete baino gutxiago: 0 puntu
- 1-2 urte: 5 puntu
- 3-5 urte: 10 puntu

Detalle de criterios evaluables de forma automática (95 puntos):

• Precio (60 puntos): Se tomará como referencia el precio ofertado para la tarifa A (sesión de hasta 90 minutos). La puntuación máxima (60 puntos) corresponde a la oferta más económica. Las restantes ofertas se valorarán mediante fórmula proporcional: Puntuación = 60 × (Precio mínimo / Precio ofertado).

• Experiencia institucional (15 puntos): se considerará la media de años de experiencia acreditada del equipo de intérpretes titulares en servicios de interpretación para administraciones u organismos públicos. Deberá presentarse relación documentada en la oferta. Se puntuará según escala:

- Menos de 1 año: 0 puntos
- 1-2 años: 5 puntos
- 3-5 años: 10 puntos

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-03-25 11:33:18(UTC) Fecha: 25/03/2026 11:33:18 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (406a85e6-de29-4c5c-9d8f-8b940078ea0) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

- 6 urte edo gehiago: 15 puntu

• Intérprete titular gehigarriak (10 puntu): gutxieneko bi titularretik gorako interprete titular bakoitzeko puntuatuko da, I. eranskineko fitxa beteta aurkezten denean:

- 3 titular (gehigarri 1): 5 puntu
- 4 titular edo gehiago (2 gehigarri edo gehiago): 10 puntu

• Erantzun-epea larrialdi-premietarako (10 puntu): enpresak, eskaintzan, konpromiso idatzia aurkeztuko du larrialdi-konbokatoria baten aurrean interprete bat eskaintzeko gehieneko epeaz. Konpromiso hori kontratuan jasoko da eta exijitu ahalko da. Eskalaren arabera puntuatuko da:

- 12 ordu baino gutxiago: 10 puntu
- 12-24 ordu: 5 puntu
- 24 ordu baino gehiago: 0 puntu

- 6 años o más: 15 puntos

• Intérpretes titulares adicionales (10 puntos): se puntuará por cada intérprete titular adicional por encima del mínimo de dos, siempre que se presente la ficha del Anexo I cumplimentada:

- 3 titulares (1 adicional): 3 puntos
- 4 o más titulares (2 o más adicionales): 10 puntos

• Plazo de respuesta a urgencias (10 puntos): la empresa presentará en su oferta un compromiso escrito del plazo máximo para aportar intérprete ante una convocatoria urgente. Este compromiso quedará incorporado al contrato y será exigible. Se puntuará según escala:

- Menos de 12 horas: 10 puntos
- Entre 12 y 24 horas: 5 puntos
- Más de 24 horas: 0 puntos

Balio-judizioz ebaluatzeko irizpidearen zehaztapena (5 puntu):

• Antolaketa eta kalitate memoria (5 puntu): enpresak memoria labur bat aurkeztuko du (gehienez 3 orrialde), honako alderdi hauek azalduz: zerbitzuaren antolaketa-sistema, Udalarekin komunikazio-prozedura, eta kalitateko bermeak proposatzen dituenak. Batzordeak 0-5 arteko eskalan baloratuko du memoria, baldintza teknikoetan ezarritako irizpideekin koherentzia kontuan hartuta.

Detalle del criterio sujeto a juicio de valor (5 puntos):

• Memoria de organización y calidad (5 puntos): la empresa presentará una memoria breve (máximo 3 páginas) describiendo: el sistema de organización del servicio, el procedimiento de comunicación con el Ayuntamiento y las garantías de calidad propuestas. La mesa lo valorará en una escala de 0 a 5 puntos, teniendo en cuenta la coherencia con las prescripciones técnicas establecidas.

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-03-25 11:33:18(UTC) Fecha: 25/03/2026 11:33:18 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotuzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (406a85e6-de29-4c5c-9d8f-8b940078ea0) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

I. ERANSKINA	ANEXO I

INTERPRETEAREN FITXA / FICHA DEL INTÉRPRETE — Nº ___	
Izen-abizenak / Nombre y apellidos	
NAN/IFZ — DNI/CIF	
Telefonoa / Teléfono	
Posta elektronikoa / Correo electrónico	
Lizitatzaile enpresa / Empresa licitadora	
Enpresakiko harremana / Relación con la empresa	

Gaitasun linguistikoak / Competencias lingüísticas (MCER/MECR)	
Hizkuntza / Lengua	Maila / Nivel (B1 / B2 / C1 / C2 / Ama hizkuntza — Lengua materna)
Euskera / Euskara	
Gaztelania / Castellano	
Beste hizkuntza batzuk / Otras lenguas	

Interpretazio-hizkuntza bikoteak / Pares de lenguas de interpretación	
Jatorrizko hizkuntza / Lengua de origen	
Helmuga hizkuntza / Lengua de destino	

Titulazio akademikoa eta esperientzia / Titulación académica y experiencia	
Titulazio orokorra / Titulación general	

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-03-25 11:33:18(UTC) Fecha: 25/03/2026 11:33:18 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotuzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (406a85e6-de29-4c5c-9d8f-8b940078ea0) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Hizkuntza titulaziorik / Titulación en idiomas	
Esperientzia dministrazio-eremuan / Experiencia ámbito administrativo **Erreferentziak / Referencias**	
Adierazten dut goian aipatutako enpresarekin lan egiteko prest nagoela Berrizko Udalak argitaratutako kontratazioarekin. / Manifiesto mi conformidad a trabajar con la empresa indicada con el objeto de la contratación publicada por el Ayuntamiento de Berriz.	
Sinadura / Firma	

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-03-25 11:33:18(UTC) Fecha: 25/03/2026 11:33:18 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotuzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (406a85e6-de29-4c5c-9d8f-8b9400788ea0) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.